

Tomatearen zaintza

Tomatea gure baratzean barazki preziatuenetarikoa da, baina baita buruhauste gehien ematen diguna. Gure klima heze eta epela ez da batere egokia landare honentzat; beraz, ondo zaindu beharko dugu hain estimatua den fruitua lortzeko.

Tomatearen etsairik handiena hezetasuna denez, hartu beharreko neurriak hezetasunari begira hartuko ditugu. Prebentzioa gakoa da mildiuari aurre egiteko.

Hartu beharreko neurriak:

- Landareen artean utziko dugun tartea zenbat eta handiagoa izan, askoz hobe. Hala ere, kontuan izanda askotan baratze txikiak izaten ditugula, 60 x 90 distantzia egokia izan daiteke.
- Tomateak ondoztatzea komeni da modu honetan sustrai gehiago ematen baitute eta landarea indartsuagoa izango baita.
- Landarearen adar xurgatzaile guztiak kenduko ditugu eta gidari bakarra utziko dugu. Adar xurgatzaileak egun hezeetan kentzea ekidingo dugu, gaitza sortzen ditugun zaurietatik errazago sartuko baita hezetasunarekin. Bestela, landarea hostozabalegi hasiko da eta ez da modu egokian aireztatuko.
- Ureztatzerakoan ez dugu inoiz landarea bustiko, kabailoi-ildoak ureztatuko dugu.
- Landarea bustita baldin badago, ez dugu ukituko, modu honetan onddoak zabaltzen baitira.
- Landareak 4-5 lore-sorta ematen dituenean, landarearen gidaria moztuko dugu.

Tratamenduak

- Hamabostean behin azeri-buztanarekin egindako egosketarekin (%20) lainoztatu ahal izango dugu.
- Jogurtak edo esne-gazurrak onddoa ez zabaltzen laguntzen dute (10 l uretan 1/2 litro)
- Tomatea landatu eta uztaile arte, 15 egunean behin bordeles salda erabiltzea aholkatzen da (kantauri isurialdean). Ondoren, saiatuko gara bestelako aplikaziorik ez egiten landarea fruituak emanda egongo baita.

El cuidado del tomate

El tomate es una de las hortalizas más apreciadas en nuestra huerta, aunque también es la que nos da más quebraderos de cabeza. Nuestro clima húmedo y templado no es nada apropiado para esta planta, por lo que tendremos que cuidarla con mucho mimo para que nos de su fruto tan codiciado.

El mayor enemigo del tomate es la humedad, por lo que la mayoría de las medidas a tomar irán en esta dirección. La prevención es la clave para hacerle frente al mildiu.

Medidas a tomar:

La distancia que dejaremos entre plantas, cuanto mayor sea mejor. Aun así, teniendo en cuenta que muchas veces tenemos huertas pequeñas, una distancia apropiada podría ser 60 x 90

Conviene aporcar los tomates, ya que, de este modo, echa más raíces y la planta será más fuerte.

Quitaremos todos los chupones a la planta y dejarle sólo una guía. Ya que, de otro modo, la planta crecería demasiado frondosa y no se airearía correctamente. Es preferible quitar los chupones en días no húmedos, ya que la enfermedad penetrará con más facilidad por las heridas si hay humedad.

Al regar, nunca mojaremos la planta, regaremos al surco del caballón

No tocaremos la planta cuando esté mojada, ya que ese es el modo en el que se expande el hongo

Cuando la planta haya echado 4-5 racimos de flores, cortaremos la guía de la planta

Tratamientos

Podremos pulverizarlos con una decocción de cola de caballo al 20% cada 15 días.

El yogur o suero de leche ayuda a que el hongo no se expanda (1/2 litro en 10 litros de agua)

Desde que ponemos los tomates hasta julio, conviene aplicar caldo bordelés cada 15 días (en la vertiente cantábrica). Después, intentaremos no realizar ninguna aplicación, ya que la planta ya habrá fructificado.